

## **MERKATUAREN SEGMENTAZIOA**

Bezeroak dira edozein negozio-ereduaren funtsa, ez baita haiek gabe denbora luzez iraungo duen enpresarik. Beraz, negozio ereduaren muina diren horretan, gure negozioa zein merkatu segmenturi zuzendua dagoen identifikatzea eta haien beharrak sakonki ezagutzea ezinbestekoa da, iraunkortasuna bermatzeko. Horren baitan diseinatuko dugu gure negozio eredia.

Hasteko beharrezkoa da merkatu motak aztertzea eta gure enpresa zein merkatu segmenturi zuzenduta dagoen identifikatzea. Horretarako, hainbat merkatu mota eta haien ezaugarriak aztertzeari ekin diogu. Hartara, gure zerbitzua kontsumitzaileen beharretara hobeto egokitzeko aukera izango dugu, hori baita gure helburua, kalitatezko, segurtasunezko eta konfiantzazko zerbitzu bat eskaintzea. Hori kontuan izanik, gure enpresak behar eta arazo ezberdinak dituen kontsumitzaileei zuzendutako merkatua asetu nahi du, beraz esan genezake segmentatua dagoen merkatu bati bideratuko garela.

Gure enpresa, aipatu bezala, arazo ezberdinak dituen bezeroen beharrak asetzen ahaleginduko da. Edonori laguntzen saiatuko garen arren, pertsona helduak eta ezgaitasun fisikoa edo psikologikoa duten pertsonetan oinarrituta sortu dugu gure negozio eredia. Izan ere, gure gizartea azterturik ukaezina da asko direla egunerokotasunean haien betebeharrak betetzeko oztopoak dituztenak. Hori dela eta, esan genezake, horiek izango direla salmenta estrategiaren bizkarrezurra.

Bestalde, gure ideia ez da haiei bakarrik eskua ematen oinarritzen den zerbitzu berritzaile batera mugatzea, bestelako laguntza mota ugari eskaini ditzazkegulako. Bezero bakoitzak, behar espezifiko bat izango du, eta gure ideia bezero bakoitzari behar duen premia zehatz hori asetzea da. Beraz, esan dezakegu bezero konkretu batzuetan pentsatu dugun arren, aniztasunez osatutako bezeroak izango ditugula.

Honekin guztiarekin, ondoriozta dezakegu merkatu honen barruan hainbat segmentu daudela. Zalantzarik gabe, segmenturik handiena pertsona helduek osatzen dute, eta azaldu bezala haietan enfokatzeko saiatuko gara nagusiki. Hala ere, badakigu azpi sektore batzuk ere presente daudela gure merkatuan, horren lekuko diru laguntza behar duten gurasoak, edo ezaugarri konkretu batzuk dituzten gazteak edota besterik gabe haien eginkizunen bat egiteko laguntza behar dutenak. Hori dela eta, gaur gaurkoz, enpresa berria den horretan, pertsona helduak edo ezgaitasun psikologiko edo fisikoak dituztenak gure lehentasuna izango badira ere, ahal dugun neurrian azpi sektoreei gure zerbitzua kontsumitzeko aukera zabaltzen ahaleginduko gara.